

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Kultura

2017ko Inauterietan parte hartuko duten konpartsei diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak

2016ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 28a

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi-ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

2017ko Inauterietan parte hartuko duten konpartsei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak

1. Deialdiaren xedea

2017ko inauterietan konpartsen parte hartzea bultzatzeko asmoz Vitoria-Gasteizko Udalak bere aurrekontuko kredituen kontura emango dituen diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak jasotzen dira araudi honetan.

Konpartsek 50 kide izan beharko dituzte gutxienez, eta 300 gehienez.

2. Diru-laguntzaren gai izan daitezkeen kontzeptuak

Ondorengo kontzeptuetara zuzenduko dira diru-laguntzak:

Karrozak eratzea: karroza egiten erabilitako material, alokairu, esku-lan eta abarrak.

Soinu-aparatuak: musikaren kontratazioa edo alokairua.

Mozorroak: mozorroak alokatu, erosi edo egiteari loturiko gastuak.

Ez dira diruz lagunduko ondorengo gastuak:

Janari-edariak.

Inauteriengatik bileretara joan beharri loturikoak.

Erregaien gastuen kasuan, bakarrik onartuko dira desfileetan parte hartzeak sortutako erregaiaren gastuak.

3. Eskatzaileak

Nahi duten entitate eta elkarte oro izan ahalko dira deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun, aurrez hala eskatzen badute, eta baldin eta elkarte gisa legez eratuta eta dagokien

Erregistro Ofizialean erregistratuta badaude, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzean Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda badaude eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

1.1 Nahi duten entitate eta elkarte oro izan ahalko dira deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun, aurrez hala eskatzen badute, eta baldin eta elkarte gisa legez eratuta eta dagokien Erregistro Ofizialean erregistratuta badaude, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzean Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda badaude eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

1.2 Diru-laguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, entitate eskatzaileek bete-behar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak bete behar dituzte. Obligazio hori eskabidea aurkezten denean bete beharko da, baina baita prozesu osoan ere (diru-laguntza ematen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean nahiz diru-laguntza ordaintzen denean).

4. Aurrekontuko kreditua eta gehieneko kopurua

Deialdi honen ildotik ematen diren diru-laguntzak 2017ko aurrekontuaren 2312.03.3381.489.22 partidari egotziko zaizkio. Partida horrek 68.500,00 euroko kreditua izango duela estimatzen da, beraz, diru-laguntzak emango dira baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago diru-laguntza ebazteko orduan.

Behin betiko onespina jasotzen duen aurrekontu-kreditua aurreikusitako kopurua baino handiagoa edo txikiagoa bada, onesten den behin betiko kopuru horixe baliatuko da deialdirako.

5. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

1.1 Aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 28an amaituko da.

1.2 Argibideak eta agiriak

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren web-orrian egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org) baita Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ohiko ordutegian.

1.3 Izapideak

Eskabideak Herritarrei laguntzeko bulegoetan eta legez aurreikusitako beste moduetan aurkez daitezke, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Eskabide bakoitzarekin batera aurkeztu beharko dira oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

Baldin eta Gasteizko Udala gai ez bada, pertsona edo entitate eskatzaileek bete beharreko obligazio fiskalak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela bezalako datuak eskuratzeko, eskatzaile horiek beharrezko diren egiaztapenak aurkeztu beharko dituzte, edo bete-behar horietatik salbuetsita daudela egiaztatzen duten agiriak, guztiak ere aribideko urteari dagokionez.

1.4 Diru-laguntzaren eskabidea zuzen formalizatuta ez dagoenean edo daturen bat falta zaio-nean, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, entitate eskatzaileari akatsa konpontzeko eskatu beharko zaio, eta baita ere esan, hala egiten ez bada, eskabidea beste barik artxibatu egingo dela.

1.5 Gasteizko Udalak egoki irizten zaizkion argibide eta agiriak eskatu ahal izango dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako diru-laguntza eskabideak balioesteko.

1.6 Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

– Diru-laguntza eskabidea, oinarri hauen I. eranskineko inprimakia baliatuz.

Kultura Zerbitzuari diru-laguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, Elkartearen estatutuen fotokopia eta Erregistro Ofizialean izena emanda duela eta legez eratur dagoela egiaztatzen duten agiriak.

– Kultura Zerbitzuari diru-laguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularraren izena agertzen dituenak –elkartearak berak izan beharko du titular, eta ez inongo beste pertsona fisikok.

– Kultura Zerbitzuari diru-laguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, Identifikazio Fisikalerako Txartelaren fotokopia.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteak dituztela egiaztatzen duen egiaztagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, edo betebeharrak horietatik salbuetsita daudela egiaztatzen duen agiria, edo, kasu hala balitz, deialdiaren I. eranskinari (eskabidea) dagokion laukian X batez markatu.

– Arabako Foru Aldundiak emandako ziurtagiria, zerga-betebeharrak beteak dituztela egiaztatzeko, edo, aukeran, deialdiaren I. eranskinari (eskabidea) dagokion laukian X batez markatu.

– Karroza egiten udalak kontratatutako istripu-aseguruaren babespean lanean arituko diren konpartsa-kideen zerrenda –gehienez 10 lagun–, izen-abizenak, nortasun agiria eta adina adierazten direlarik (deialdi honetako II. eranskineko inprimakia baliatuz). 18 urtetik gorakoak eta 70etik beherakoak izan behar dute.

– Asegurua kontratatzeko, desfileetan parte hartuko duten konpartsakideen izen-zerrenda, izen-abizenak, nortasun agiria eta adina adierazten direlarik (deialdi honetako III. eranskineko inprimakia baliatuz). Konpartsakideen artean desgaitasun aitortua duenik balego, datu hori ere inprimaki horretan bertan adierazi beharko da.

– IV. eranskina sinatuta, non Udalak karrozak egiteko asmoz alokatutako pabiloiaren erabilera araudia ezagutzen duela eta beteko duela adierazten den. Kultura Zerbitzuak gehienez bi hilabete eta erdirako alokatuko du pabilioi hori; alokairu aldia zabalago edo laburragoa izan ahalko da, gastuari aurre egiteko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa dagoen neurrian Edonola ere, Inauterien osteko hurrengo astea barne izango da beti, eta desmuntatze lanetarako erabiliko da.

6. Agiriak aurkeztea

Agiriak euskarri digitalean aurkez daitezke honako formatuetan: USB memoria, SD txartela, CD, DVD edo antzeko izaerakoak.

Halako euskarriak artxibo grafikoak eta/edo testu artxiboak (pdf euskarrian, halabeharrez) eduki beharko ditu, eta ez karpetarik baizik maila bereko agiriak.

Euskarri digitalean dauden agiri guztiak dokumentazioa euskarri digitalean aurkezteari buruzko erantzukizunpeko aitortpena egiteko orriekin batera aurkeztuko dira, eta behar den bezala izenpetuta eta/edo ontzat emana, dagokiona dagokiola.

Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

Agiriak paperean aurkeztuz gero, DINA-4 edo DINA-3 tamainakoa behar du izan, eta, herri-tarrei laguntzeko bulegoan digitalizazioa errazteko, guztiz beharrezkoa da orri solteak, grapak, klipak edo multzokatzeko inolako sistema erabili gabe aurkeztea.

7. Diru-laguntza emateko baldintza eta irizpideak

1. Izatekotan ere, onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

– Mozorroak gaika aurkeztea

Deialdian parte hartu nahi duten konpartsek gai eta mozorro hautatuak (bozetoa eta/edo argazkiak) aurkeztu beharko dituzte Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuan, irailaren 23tik hasita eskabideak aurkezteko epea amaitzeko epera arte (2016ko azaroaren 28a).

Komunikazioa zuzenean aurkeztu eta erregistratu ahal izango da Kultura Zerbitzuan (Goiuri jauregia, Aihotz plaza, z/g), baita e-postaz (infocultura@vitoria-gasteiz.org).

Talde bat baino gehiagok gai berbera aurkeztera, Kultura Zerbitzuko teknikariek eragindako konpartsen ordezkariak jakinaraziko die egoera, irtenbide adostua bilatu asmoz; halakoan, berriazko jakinarazpen idatzia aurkeztu beharko dute Kultura Zerbitzuan.

Aldeen artean adostasunik lortzen ez bada, edoi aldeek ez badute behar bezala akordio hitzarturik aurkezten, Kultura Sailean jasotako lehen jakinarazpenari emango zaio mozorro eta gai erregistratua eramateko baimena, betiere aipaturiko moldeetan. Eragindako beste konpartsek aldatu egin beharko dute nola gaia, hala mozorroa ere.

– Eskabidea eta oinarri hauetan eskatzen diren gainerako agiriak epe barruan aurkeztea.

– 2016. urtean diru-laguntza jaso zuten konpartsentzat, urte horretako gastuen justifikazioa aurkeztua izatea.

2. Eskabideak balioesteko batzordeak egingo du proposamena, eskabidea egiten duten elkartei diru-laguntza eman ala ez erabakitzeko, irizpide hauek baliaturik:

– Parte-hartzaile kopurua: Konpartsakide bakoitzeko gehienez 6,50 euroko diru-laguntza emango da. Konpartsakide bakoitzeko ordainduko den kopurua aurrekontu-partidaren guztizko zuzkiduraren eta jasotako eskabide kopuruaren arabera izango da.

– Karroza: Parte hartu eta arauak betetzen dituelarik, gehienez 900,00 euro jasoko ditu karroza bakoitzak. Karroza bakoitzeko ordainduko den kopurua aurrekontu-partidaren guztizko zuzkiduraren eta jasotako eskabide kopuruaren arabera izango da.

– Soinua: Musika daraman konpartsa bakoitzak, halaber, gehienez 600,00 euroko laguntza jasoko du. Kontzeptu honengatik ordainduko den kopurua aurrekontu-partidaren guztizko zuzkiduraren eta jasotako eskabide kopuruaren arabera izango da.

8. Laguntza emateko prozedura

Oinarri hauek azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzei buruzko Araudiaren 56 artikulua xedatutakoaren ildotik bideratu dira, eta horiek alde aurretik izapidetu beharrekoak izan dira; beraz, diru-laguntzak ematekotan, nahiko kreditu izan beharko du deialdia ebazteko orduan. Kontuan izanik diru-laguntza honen xedea eta helburua, oinarri hauetan ezarritako baldintza eta betebeharrak bakoitza eta guztiak betetzen dituzten eskaerak jasoko dituzte diru-laguntzak, harik eta, kasua hala balitz, aurrekontu osoa gastatu arte.

9. Azterketa eta ebazpena

1.1 Behin eskabideak jaso eta tramiterako onartu, kasu bakoitzean eskatutako betebeharrak bete direla egiaztatu ondoren, balioesteko txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena idatziko dira, eremu bakoitzari dagokionez eta ezarritako irizpideen arabera.

1.2 Udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta berak ofizioz egingo ditu eskatutako diru-laguntzen ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

1.3 Aurreko lerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako Batzorde teknikoa eratuko da, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak, Kultura Zerbitzuko atalburuak eta zerbitzu horretako bi teknikariek osatuta. Batzorde horrek Tokiko Gobernu Batzarrera bidaliko du ebazpen-proposamena ebazpena eman diezaioten.

10. Ebatzi eta jakinarazteko epea

1.1 Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, diru-laguntzaren eskabidea ezetsizat joko da.

1.2 Diru-laguntzak emateko eta/edo ezesteko erabakiak ALHAOn eta udalaren web gunean argitaratuko dira, <http://www.vitoria-gasteiz.org>. Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena eman eta hurrengo hamar eguneko epean.

1.3 Diru-laguntzak emateko ala ezesteko erabakiak administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, web gunean jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, udalaren web gunean jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen duen egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

11. Erakunde onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako diru laguntzen entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte, nolahi ere:

- Diru-laguntza zertarako eman zaien, hartarako baliatzea.
- Laguntzak berekin dakartzan betebeharrak eta baldintzak bete direla egiaztatzea Kultura Zerbitzuaren aurrean.
- Diruz lagundutako jardueraren segimendua egite aldera, eskatutako agiri guztiak ematea udalari.
- Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuak nahiz Kontu-hartzailetzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duen beste edozein organok eskatutako informazio oro ematea.
- Diruz lagundutako jardueraren barruan egin nahi den edozein aldakuntza udalari idatziz jakinaraztea.
- Udalak karrozak egiteko asmoz alokatutako pabiloiaren erabilera araudia betetzea (oinarri hauetako IV. eranskinean jasota daude).

– Karroza eta desfileei buruz ondoren agertzen diren eskatutako baldintzak betetzea:

1 Karrozak

Konpartsak karrozarik badu, gutxienez 12 m²ko eta gehienez 6 x 4 x 4 m-ko plataforma gogor eta egonkor baten gainean jarri beharko da (luzera, zabalera eta altuera, apaingarriak barne).

Plataformek pneumatikodun edo malgutasun-maila bereko elementuez hornitutako gurpilak izan behar dituzte, zeinek biratze-bandaren zirrikitu nagusietan marrazkidunak izan behar diren, eta erabiltzeko gutxienerako egoera onean egon.

Karrozak suak hartu ezinako hegalek babestu beharko dira perimetro osoan, eta su-italgailu bat izan beharko dute. Ahal den neurrian, karroza egiteko materialak suaren aurkakoak izan beharko dira.

Argindar instalazioa eta karroza bakoitzeko argi eta soinu ekipoen tentsio baxuko agiria eduki beharko du, argindar-instalazailerak baimendu batek emana.

2017ko otsailaren 20an karrozak prest egongo dira dagokien ikuskerak gaitzeko, Kultura Zerbitzuak horretarako kontratatutako enpresa baten laguntzarekin elektrizitate instalazioen ziurtagiria (CIE) izan dezaten.

Ekipo elektrogenoak babestuko egon beharko dute, eta kanpoan egon beharko balukete, eguraldi txarrerako beharrezko babesa eduki beharko dute.

Argiztapen sistema ekipo osagarriren batek sortua bada (multzo elektrogenoa), ezin izango da hura material sukoiez inguratuta egon.

Debekatuta dago kandela, petrolio edo/eta gas bidezko argiztapen sistema oro. Sistemak behar bezala erabiltzeko moduan egon behar dute desfilea hasi baino lehen; horrela izan ezean, karroza erretiratu ahal izango da.

Karroza erregeaz hornitzeko unean (betiere ibilgailua geldirik dagoela bete beharko da errege-depositua) zorrotz egin beharko dira segurtasun neurriak. Depositu lagungarriak homologatuak izan beharko dira, eta bero-iturrietatik ondo berezita egin beharko dute.

Karroza gainean adindun 2 pertsona joan ahal izango da gehienez. Arau hau ez betetzeak zigorra ekarriko du.

2 Ibilgailuak

Desfilean parte hartuko duten ibilgailu motordunek zirkulazio baimena, Ikuskaritza Teknikoaren txartela eta dagozkien aseguru-polizak izan beharko dituzte. Gidariak gidabaimena izan beharko dute, daramaten ibilgailu motari dagokiona.

Ibilgailuen gidariei trafiko alorreko legedia aplikatuko zaie. Alkohol-kontsumoari dagokionez, Udaltzaingoak kontrolak egin ahal izango ditu desfileak hasi aurretik eta iraun bitartean.

3 Desfileak

Diru-laguntza eskatzen duten konpartsek parte hartze aktiboa izan beharko dute larunbateko eta igandeko desfileetan nahiz sardinaren erreketan.

Desfile egunetan, karrozen gidariak pabilioian izan beharko dira konpartsa guztien artean adostutako orduan, hartara modu egokian eta bakoitzari egokitu zaion hurrenkeran atera daitezen; adostutako orduan egon ezean, karrozak desfilean zegoen lekua galduko du, ea azken lekuan aterako da.

Karroza bakoitzaren alboetan antolatzaileek identifikatu eta egiaztatutako laguntzaileak joan beharko dira, gutxienez pertsona bat 6 metro bakoitzeko, antolatzaileek behar bezala identifikatuta eta egiaztatuta.

Ez da onartuko karrozen eta beste parte-hartzaile batzuen artean 10 metro baino tarte handiagorik; segizioa modu lerrokatu eta uniformean joan beharko da.

Ibilgailua matxuratu egingo balitz, edo bestelako akatsik gertatzen bazaio, desfiletik aparte geratu beharko da, eta berehala antolatzaileei jakinarazi.

Ezin izango da karrozatik gozokirik bota.

Debekatuta dago gargailuak eta material piroteknikoa erabiltzea.

Segurtasun arrazoiak direla eta, espaloietan jendetza pilatzen denez gero, desfileetan ezin izango da animaliarik ez bertan eduki ezta erabili ere.

Soinua erreproduzitzeko tresnak soilik desfileak iraun bitartean aktibatu ahal izango dira; desfilea amaitzean isildu egin beharko da karrozako musika. Soinu-aparatuen bolumena egokitu egin beharko da Espazio Publikoaren Zerbitzuak emandako baimenak ezarritako eskakizunetara (90 dBAko muga soinua eragiten duen tresnatik 4 metroko distantzian, Show integrazio-konstantea erabiltzea aholkatzen da.

Gasteizko Udalak inauterietako egitarauko ekintza publikoetan hartutako argazkiak erabili ahal izango ditu Udalaren web-orrian ipintzeko.

12. Uko egitea

Diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren, entitate onuradunak hari uko egitea eska dezake Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, eskabide normalizatuaren bitartez.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehenago aurkeztu beharko da uko-agiria, eta ondorioa izango du Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak onartu ondoren, eta kasua hala balitz, itzuli egin beharko lirateke jasotako diru-kopuruak.

13. Diru-laguntza ordaintzea

1.1 Diru-laguntza zatika ordainduko da: diru-laguntza osoaren ehuneko 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da, eta gainerako ehuneko 20 jarduera amaitzen denean eta jarduera osoa gauzatu dela justifikatu ondoren.

1.2 Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da diru-laguntza, onuradunak horretarako eskabidean adierazi duen kontu korrontean.

1.3 Honako kasuetan ez da diru-laguntzarik ordainduko: entitate onuradunak udalak emandako diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ez eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun bada ere.

14. Diru-laguntzak justifikatzea

1.1 Eskabideak aurkezteko epeak

Emandako diru-laguntzen justifikazioa hiru hilabeteko epean egin beharko da, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik kontatuta.

1.2 Justifikatu beharreko kopuruak

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko dute diru-laguntzen esleipendunek -ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik-, hala xedaturik baitago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan, eta berariaz adierazi beharko dituzte udalak ematen duen diru-laguntzari egozten zaion kostuaren gastuak.

Proiektua edo jarduera hainbat entitate publiko nahiz pribatuk finantzatutakoa bada, edo/eta baliabide propioak baditu, kostu osoa justifikatu eta egiaztatu beharko da. Halakoetan, azken justifikazioarekin batera, I-J eranskinaren araberrako adierazpena aurkeztu beharko da (Beste erakunde batzuei egozten zaizkion gastuen zerrenda), eta, izenak emanez, diruz lagundutako proiektuari egozten zaizkion gastuak oro zerrendatu.

1.3 Justifikazio-sistema

Diru-laguntzaren onuradunek diru-laguntza justifikatu beharko dute, egindako gastuaren justifikatzeko kontua aurkeztuta, ondoren ezarritakoaren ildotik, diruz laguntzeko arlo bakoitzeko oinarri bereziek bestelako justifikazio-sistematik ezarri ezean.

Justifikatzeko kontuak honakoak jaso beharko ditu:

a) Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzak adierazita.

b) Jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honakoak azalduta:

— Egindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zeinean datu hauek zehaztuko baitira: zorduna, zenbatekoa, emate-data eta ordainketa. Horretarako onuradunak koadro batean zehaztuko ditu emandako diru-laguntzari dagozkion fakturak, kontzeptuka bilduta (II-J eranskinaren arabera).

— Diru-sarrera eta gastuen balantzea, III-J eranskinaren arabera.

— Diruz lagundutako jarduerari dagozkion jatorrizko fakturak, edo faktura horien kopia konpultsatuak, eta ordain-agiri horiek laguntzak xede duen helburua betetzeak sortu dituela egiaztatzeko agiria zein agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeko agiria, IV-J eranskinari jarraiki.

– Diruz lagundutako azalpen bakoitza (parte-hartzaileen kopurua, karroza eta soinua) eta bakoitzarengatik emandako kopurua, behintzat, estaltzen eta justifikatzen dituzten fakturak aurkeztu beharko dituzte.

– Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Jaso-izanaren agiria izenpetzen duen pertsonak ezin izango du enpresaria edo profesionalaren izaera, bestela dagokion faktura egin eta eman beharko luke ezinbestean.

Jaso-izanaren agiriak datu hauek bildu behar ditu:

– Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.

– Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.

– PFEZaren atxikipena (dagokion Zerga agentzian egindako atxikipena sartu izanaren agiria erantsi behar da).

– Tokia, data eta jasotzailearen sinadura

– Langileen gastuak nomina eta onuradunaren konturako Gizarte Segurantzaren TC2 agiria-
ren bidez justifikatu beharko dira. Gastua diruz lagundutako jarduerari dagokiola justifikatzen duen erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da nominekin eta TC agiriekin batera, egotzitako denbora eta kopuruak zehaztuta (V-J eranskina). Kasua hala balitz, elkarteak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik izan ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena (VI-J eranskina).

– Onuradunaren adierazpena, eta bertan zehaztuta diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, kasua hala balitz, bestelako laguntzarik eskuratu ez duela adierazi beharko du (VII-J eranskina).

1.4 Emandako diru-laguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa.

Justifikazioaren betebeharra ez betetzeak edo justifikazio eskasak jasotako kopuruak eta horiei dagokien interesak itzuli behar izatea ekar lezakete, diru-laguntzei buruzko lege nagusiaren 37.1 artikuluan ezarritako ildotik.

15. Onuradunak egiten duen diru-laguntzaren publizitatea

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela azaldu beharko dute, argi eta garbi, publiziterako baliatzen dituzten bitarteko guztietan.

Halaber, udalaren finantziarioa publikoki agertu beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten inprimakietan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektronikoko eta ikus-entzunezkoetan, iragarkietan, eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsiko da honako testuarekin: "Gasteizko Udalak diruz lagundutako proiektu honen edukiaren erantzule osoa eta bakarra entitate onuradunarena da." Udalaren sailek udal logotipoa pertsona eta entitate onuradunei bideratu eta erraztuko diete.

Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, gaztelania eta euskara, Euskal Autonomia Erki-
degoan diru-laguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

16. Azpikontratazioa

Onuradunek jarduerak azpikontratatu ahal izango dituzte, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. 2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, diru-laguntzaren arlo bakoitzeko oinarri bereziek bestelakorik ezarri ezean.

17. Programa aldatzea

Diruz lagundutako programa edo jardueraren edozein funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, berariaz eta egin aurretik eskatu beharko zaio Gasteizko udalari. Aldaketa gauzatu ahal izango da, bakarrik horretarako baimena jaso izan ondoren. Oro har, administrazioaren isiltasuna ezetsizat jo beharko da, aldaketa egiteko dagokionez.

18. Beste laguntzekiko bateragarritasuna

Gasteizko udalak ematen dituen diru-laguntzak beste administrazioek edo entitate publiko nahiz pribatuek emandakoekin bateragarriak izango dira, diru-laguntzaren arlo bakoitzeko oinarri bereziek bestelakorik ezarri ezean.

Dena den, diru-laguntzen eta bestelakoren bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako jarduera edo programaren kostu osoa baino handiagoa izan.

19. Diru-laguntzak itzultzea

Jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan:

- Eskabidean emandako datuak edo aurkeztutako agiriak faltsutu egin badituzte.
- Diru-laguntza zertarako eskatu duten, hartarako erabili ez badute.
- Hamaikagarren oinarrian -eta, oro har, oinarri hauetan- ezarritako betekizunak urratu badira.
- Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 20. artikuluan adierazten diren kasuetan.

Halaber, elkarte onuradunek garatuko den jardueraren kostuaren gainean lortutako soberrakina itzuli egin beharko dute.

20. Arau-haustea eta zigorrak

Indarrean dagoen legediak xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

21. Interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere -uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia-, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Oinarri hauetan eta honako Udal plan hauetan aipatzen diren udal ordenantza eta araudiak: Berdintasun plana, Euskara plana, Udalaren gazte plana, Mugikortasunplana, Irisgarritasunplana, etab. Gasteizko Udalaren web gunean kontsulta daitezke: www.vitoria-gasteiz.org



I. eranskina

2017KO INAUTERIAK

ELKARTEA

IZENA:

IFK:

HELBIDEA:

POSTA KODEA:

BANKUKO DATUAK

BANKUA EDO KUTXA:

KONTUA (IBAN + 20 zenbaki)

TITULARRA:

ORDEZKARIA

IZEN-DEITURAK:

TELEFONOA(K):

E-POSTA:

BESTE IZEN ETA TELEFONO BATZUK:

Goian aipatzen den elkarteak izena ematen du Inauterietan parte hartzeko eta dagokion diru-laguntza eskatzen du, eta bere erantzukizunpean aitortzen du ezagutzen, onartzen, eta beteko dituela aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak eta arauak, eta ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.

Horretarako, parte-hartze horren nondik norakoak zehazten ditu ondoren:

KONPARTSA BAI EZ

KARROZA BAI EZ

MATRIKULA ZK. PABILIOIA DUGU BAI EZ

SOINUA BAI EZ

DESFILEETAN PARTE HARTZEKO ERABILI NAHI DEN IZENBURUA:

PARTE-HARTZAILE KOPURUA:

Ohar garrantzitsuak:

- 2016ko azaroaren 28an bukatuko da eskabideak aurkezteko epea.
- Eskaera honekin batera, parte hartzaile guztien izen-abizenak zerrendatuko dira.



Eta Gasteizko udalari honetarako baimena ematen dio:

Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera. Adierazi hemen

Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatzeko. Adierazi hemen

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

Adierazi hemen

Baimen horiek EZEZTUZ gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteak dituzuela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.

Adierazi hemen

Gasteizen, 2016koaren (e)an

Izenpea:

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularra Udala bera da, eta pertsona nahiz erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero — norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira jo beharko duzu, helbide honetara: Teodoro Doublang Margolariaren kalea 25; 01008 Vitoria-Gasteiz, edo Herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.



II. eranskina

Karroza egiten lan egingo duten konpartsako kideen izen-zerrenda. 10 pertsona gehienez. 2017ko inauteriak

Konpartsaren izena _____

Izen-deiturak	NAN	Adina

Vitoria-Gasteizen, 2016ko aren (e)an.

Izenpea eta elkartearen zigilua

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularra Udala bera da, eta pertsona nahi erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero — norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira jo beharko duzu, helbide honetara: Teodoro Doublang Margolariaren kalea 25; 01008 Vitoria-Gasteiz, edo Herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.



IV. eranskina

Karrozak prestatzeko pabilioiaren erabilera arauak

2017ko inauteriak

1. Pabilioiko plazak zenbatu egingo dira, eta desfilean konpartsa bakoitzari egokitu zaion hurrenkeraren arabera beteko dira.
2. Ezin da giltzaren kopiarik egin. Giltza jasotzen duen ordezkaria da, konpartsaren izenean, giltza horien erantzule bakarra.
3. Pabilioiko ateak itxita egon beharko du uneoro. Barruan sartu eta gero, derrigorrezkoa da atea berriro ixtea.
4. Karrozak egiteko lanetan ez dihardutenek debekatuta dute pabilioian sartzea. Horrez gain, ezin izango da ondoko pabilioietara sartu.
5. Karrozak egiten lanean arituko diren konpartsa-kideak jarduera horrek eskatzen dituen segurtasun eta babes neurri guztiak hartuko dituzte.
6. Pabilioian sartzea debekatuta dago 14 urtetik beherakoentzat.
7. Egunero, pabilioia utzi baino lehen, azkenengo konpartsakideak koadroaren argia itzali egingo du.
8. Debekatuta dago pabilioi barruan ibilgailuak aparkatzea, ez bada zamalanetarako. Behin zamalanak amaituta, ibilgailua atera egin beharko da pabilioitik.
9. Jagole batek zainketa lanak beteko ditu zehaztuko diren egun jakin batzuetan. Zerrendetan agertzen diren pertsonak sartu ahalko dira pabilioira egun horietan. Jagoleak ez du beste inor sartzen utziko, eta horretarako sartu nahi duenari agiriren bat eska diezaioke nor den jakin ahal izateko.
10. Edukiontzia hornitzen dituen enpresarekin harreman zuzenak Konpartsen batzordeak egingo ditu.
11. Debekatuta dago sua piztea, sukaldari lanak egitea edota arrisku handia duen beste edozein gauza egitea.
12. Pabilioitik alde egitean, bertara sartzean aurkitu zuten egoera berean uzteko konpromisoa hartzen dute konpartsek. Hain zuzen, karrozak egiteko erabili dituzten material guztiak kendu eta aterako dituzte.
13. Erremolkeak eta materialak kendu eta pabilioitik alde egiteko epea martxoaren 5ean (igandea) bukatuko da, 22:00etan. Giltzak martxoaren 6ko (astelehenarekin) 14:00ak baino lehen itzuli beharko dira Kultura Zerbitzuan.
14. Arau hauek ezin dira aldatu Kultura Zerbitzuaren baimenik gabe. Halaber, gerta litezkeen arazoak bertan jakinarazi beharko dituzte erabiltzaileek.
15. Gasteizko Udalak erantzukizun zibileko aseguru-poliza dauka kontratatua bereak diren nahiz alokatuta dituen eraikin guztietarako, eraikina bera nahiz edukia barne direla. Hala ere, pabilioia erabiltzeko arauak ez betetzearen ondorioz kalteak sortuko balira, erabiltzaileak izango dira erantzule bakarrak, eta ez udala.



16. Ez dago ez janaririk ez edaririk sartzerik.
17. Beheko sinatzaileek, haien konpartsen izenean, arautegi hau onartzen dute eta betetzeko konpromisoa adierazten dute.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko aren (e)an.

Sinatua
Konpartsaren ordezkaria



I-J ERANSKINA - Beste erakunde batzuei egotzitako gastuen zerrenda edo/eta baliabide propioak

JARDUERA FINANTZATZEKO FUNTS PROPIOAK NAHIZ BESTE ERAKUNDE BATZUETATIK JASOAK (Diru-laguntzen Lege Orokorraren 30.4 artikulua)

..... jaunak / andreak –nortasun-agiria:.....–, honako honen izenean eta ordezkari gisa:, zeinek Gasteizko Udalaren diru-laguntza jaso baitu programa / proiektu honetarako: , programa / proiektu horretarako baliatu diren baliabide propioak nahiz beste erakunde batzuetatik jasotakoak justifikatze aldera –diru-kopuruak, horien jatorria eta zertan erabili diren–, zerrenda honetan adierazten diren **gastuak aurkezten ditu:**

I.- Eusko Jaurlaritzaren ekarpena / AFaren ekarpena / Beste entitate batzuen ekarpena / Baliabide propioak (adierazi zein):

Zk.	Jaulkitzailea	Data	Azalpena	Zenbatekoa
Eusko Jaurlaritz				
a				
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
Guztira				
A.F.A.				
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				



Guztira				
Bestelako erakundeak				
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
Guztira				
Baliabide propioak				
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
Guztira				
Guztira				

ZINPEKO AITORPENA

Behean izenpetzen duenak bere erantzukizunpean aitortzen du adierazitako datuak benetakoak direla.

Lekua eta data
ordezkariaren sinadura

Zigilua

Legezko



II-J ERANSKINA - Udalaren diru-laguntzari egotzitako gastuen zerrenda

PROIEKTUAREN IZENA

ERAKUNDE ESKATZAILEA	
Izena	IFZ
Erakundea ordezkatzeko duenaren izen-deiturak	NAN/PASAPORTEA/

Oharra: lerro gehiago behar izanez gero, jarraitu, mesedez, hurrengo orrian, eredu hau gidatzat baliatuta

Langile-gastuak				
	Nolakoa	Data	Azalpena	Zenbatekoa
1				
2				
3				
4				
5				
Langile-gastuak, guztira				

Material erosketak				
	Nolakoa	Data	Azalpena	Zenbatekoa
1				
2				
3				
4				
5				
Materiala erostea, guztira				

Garraioa				
	Nolakoa	Data	Azalpena	Zenbatekoa
1				
2				
3				
4				
5				
Garraioa, guztira				

Hornikuntza				
	Nolakoa	Data	Azalpena	Zenbatekoa
1				
2				
3				

**OHARRAK:**

Gastuen zerrenda sailkatua justifikatzean, honako datuak zehaztu behar dira:

- 1.- Mota: adierazi egiaztagiria fakturak, jaso-izana, nomina, TC1 edo TC2 diren.
- 2.- Zenbakia: egiaztagiria faktura bada, fakturaren zenbakia
- 3.- Data: fakturaren data. Nomina bada, zein hilabeteri dagokion.
- 4.- Jaulkitzailea eta hartzailea: faktura edo jaso-izanaren agiria jaulki duenaren izen-deiturak edo erakunde izena. Nominak badira, langilearen izen-deiturak.
- 5.- Kontzeptua: fakturan edo jaso-izanaren agirian ageri den kontzeptua
- 6.- Zenbatekoa: zehaztu diruz lagundutako proiektuari egotzitako kopurua. Ohartxo bidez, fakturan, jaso-izanaren agirian, TC1ean, TC2an edo nominan ere adierazi behar da.
- 7.- Zenbatekoa, guztira: kontzeptu bakoitzean justifikatutako guztiaren baturarekin bat etorri behar du zenbateko horrek.



(a)

III-J ERANSKINA.- Balantzea**SARRERA ETA GASTUEN BALANTZEA**

PROIEKTUA/JARDUERA:

DIRU-SARRERAK:

- Gasteizko Udalaren diru-laguntza _____
- Beste administrazio batzuen diru-laguntza _____
- Entitate eskatzailearen ekarpena _____
- Erabiltzaileen ekarpena _____
- Beste entitate batzuen ekarpena _____

DIRU-SARRERAK, guztira	
---------------------------	--

GASTUAK:

Nolakoa	Udala	Bestelako erakundeak	Baliabide propioak	Guztira
Langile-gastuak				
Materiala erostea				
Garraioa				
Hornikuntza				
Zerbitzu profesionalak				
Inbertsioak				
Beste				
GASTUAK, GUZTIRA				

Vitoria-Gasteizen, 201 (e)ko aren (e)an.

Izp.:

Lehendakaria edo finantza-arduraduna



IV-J ERANSKINA.- Fakturen egiazkotasuna adieraztea

(b)

D. Izen-deiturak: Nortasun Agiria: Ordezkatzen duen erakundearen edo elkartearen izena: _____

honakoa ADIERAZTEN DU:

Aurkezten diren faktura, ordainagiri eta gastu-ziurtagirien kopiak edo jatorrizkoen kopia erkatuak aurreikusitako helburua burutzetik sortu zirela, hau da, Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatutako programa hau gauzatzeak (diru-laguntza jaso zuen programa edo helburu zehatza adierazi):

Jatorrizko agiriak eskuragarri daude, ikuskatu nahi izanez gero ere.

Eta, Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakoa betetze aldera, hala sinatzen du, egiaztagiri balioa izan dezan.

Vitoria-Gasteizen, 201 ko aren (e)an.

(Izenpea eta elkartearen zigilua)



VI-J ERANSKINA - Soldatapeko langilerik ez izatearen zinpeko aitortpena

.....jaunak/andreak
Nortasun-agiria: Helbidea:
.....-
telefonoa:.....
Kargua
ELKARTEA / ENTITATEA
Elkartearen helbidea:

Zinpean aitortzen du, Gasteizko Udalak
..... burutzeko egin duen diru-
laguntza deialdiari dagozkionetarako,
berak ordezkatzeko duen entitateak/elkartek ez duela soldatapeko langilerik.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

Vitoria-Gasteizen,

(Izenpea eta elkartearen zigilua)



VII-J ERANSKINA - Beste diru-sarrera edo laguntza adieraztea

E. Izen-deiturak: Nortasun Agiria: Ordezkatzen duen erakundearen edo elkartearen izena: _____

honakoa ADIERAZTEN DU:

- _____ proiektua finantzatzeko bestelako diru-iturririk baduzu:
 - Erakundea _____ Zenbatekoa
 - Erakundea _____ Zenbatekoa
 - Erakundea _____ Zenbatekoa
- _____ proiekturako ez duzu eskatu ezta jaso ere inolako bestelako diru-laguntzarik

Vitoria-Gasteizen, 201 ko _____ aren (e)an

(Erakundea ordezkatzen duen pertsonaren izenpea eta erakunde eskatzailearen zigilua)